






WIKILAB

Elkarsorkuntzarako eta elkarlanerako laborategia. Gure I+G+B unitatea, gure ideiagintzarako, esperimentaziorako eta prototipoak sortzeko espazioa.. Ikaskuntza- eta praktika-komunitate gisa aritzen gara. Adimen kolektibotik, askotariko jakintzen nahasketatik eta sormen aplikatutik ikertzen dugu. Sortutako ezagutza sistematizatzen eta partekatzen dugu berrikuntza libre eta irekiaren gakoetan, erraz erabili eta egokitzeko modukoa izan dadin, bai Wikitoki komunitatearen barruan, bai kanpora begira.



Wikitokiren zerbitzu-zorroa, bere ekintzekin eraldaketa positiboak bideratu nahi dituzten bezeroekin proiektuak garatzeko. Gure eskaintzak komunitateko kideen trebetasunak eta ezagutzak uztartzen ditu. Proiektu bakoitza mundu bat den arren, gure aritzeko moduak parte-hartzeak eta elkarsorkuntzak, bideratzeak eta laguntzeak, komunitate-kulturak, feminismoek, ekologiak, ekonomia solidario eta eraldatzaileak edo herritarren berrikuntzak elikatzen dituzte.


WIKISARE

Kidetasun-, ordezkaritza- eta elkarrizketa-sare kolektiboa, antzeko interesak edo interes osagarriak dituzten gertuko beste eragile batzuei Wikitoki komunitatea ireki, dibertsifikatu eta zabaltzeko aukera ematen diguna. Honakoek osatzen dute: komunitatearen parte aktiboa izan gabe lotura formala duten pertsonak eta erakundeak; laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkiegun proiektuek; eta beste hainbat elkartek edo sarek, zeinen parte garen. Lankidetzak praktikak eta sortzen ari diren egiteko beste modu batzuk ezagutarazteko, artikulatzeko eta horien garrantzia nabarmentzeko balio du.



VIKITOKI

Elkarsorkuntzarako Laborategia
Laboratorio de prácticas colaborativas



TSANTSIZIOAN GAUDE!

BILBO SAN FRANTZISKO AUZOTIK

Tokiko, estatuko eta nazioarteko sare formal eta informaletan aktiboki parte hartuz

KOMUNITATE IREKIA GARA

pertsonen eta beste espezieen bizitzetan, haien harremanetan eta bizi diren inguruneetan eraldaketa bilatzen duten proiektuak garatzen dituzten profesionalak.

EGITEKO MODU BAT GARA

batzen gaituena gure aritzeko moduak dira, KO- dena lotura komun gisa (kolektiboa, kolaboratiboa, kooperatiboa, komunitarioa... dena) eta izaera esperimental zein eraldatzailearekin.

TOPAGUNEA GARA

eragileen eta diziplinen arteko elkarrikketa eta hibridazioa bilatzen dugu, datozen erronka eta trantsizio konplexuei aurre egiteko.

Gertu ditugun errealitate zehatz eta kokatueta lan eginez.

Esku hartzen ditugun pertsonekin eta tokiekin konprometituz.

Hainbat arlotan aritzen gara, hala nola, arkitekturan eta hirigintzan, prozesuen eta esperientzien diseinuan, testuinguru-arteetan eta kultura-bitartekotzan, osasunaren kudeaketa kolektiboan, ingurumen- eta gizarte-ekologian, teknologialibre eta datu irekietan, transmedia komunikazioan, etab.

2014tik AURRERA
EL ARSORUNTZA SUSTATUZ

ANTOLATUTA GAUDE

Espazioak eta baliabideak partekatzen ditugu, harremanak lantzen ditugu, kolektiboki ikasten dugu.

Boterea, erabakiak hartzea eta lan kooperatiboa horizontalki banatuta.

Modu kolektibo, erantzunkide eta gertuean
Wikikrazia


Pertsonak, haien emozioak eta egoerak zaintzen ditugu.

Presarik ez izaten eta prozesuez gozatzeko ahalgintza gara.

HAUSNARRETARAKO ETA LANERAKO ILDEO ESTRATEGIAK

WIKILAB

Esperimentazio- eta sistematizazio-laborategia



WIKIKOOP

Eraldaketa bideratzeko zerbitzu-zorroa

WIKISARE

Kidetasun-, ordezkari- eta elkarrikketa-sarea

